

Euskalduna Jauregia, A.B.
Palacio Euskalduna, S.A.

Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna S.A.k, Bilboko Kongresu eta Musika Jauregia ustiatzen duen titular gisa, 2020ko ekitaldirako helburu nagusi gisa apur bat hobetu nahi du jardueren maila ona, hala kulturari, nola biltzar- eta bilera-arloan.

Biltzar- eta bilera-jardueraren arloan, 2019an egindako ekitaldiak pixka bat gutxituko direla aurreikusi da; beraz, 2019an lortutako diru-sarrerak horren arabera txikituko dira.

Era berean, kultura-arloan, aurrekontuen arabera, 2020rako, jarduera-arlo horretako diru-sarrerak pixka bat igoko dira.

Era berean, kultura-arloan, 2020rako aurrekontuan kalkulatu da 2019an lortutako diru-sarrerak mantenduko direla.

Ostalaritzako eta aparkalekuko kontzesiodunengandik jasotako diru-sarreraren atalean, 2020ko aurrekontuetan kalkulatu da 2019an lortutako diru-sarreraren maila handitzea.

2020rako aurreikusi diren sarrerei eta jarduerari esker, aurten ere zerbitzuak eskaintzeko egin behar diren gastuak estali ahal izango ditugu.

Bezeroei eskaintzen dizkiegun instalazioek duten mailari esker, Euskaldunak biltzar-jauregien arloan duen leku abantailatsua betetzen jarraitu ahal izango du 2020an.

Horrez gain, aurreko ekitaldietan bezala, 2020ko helburuen artean, garrantzizkoa da kudeaketa-sistemarekin lortu ditugun aitorpenei eustea, etengabeko hobekuntzarekin jarraitzea, eta kalitateari lotutako alderdiak finkatzea zerbitzuak ematean, ingurumenarekiko jarrerari, laneko arriskuen prebentzioan eta irisgarritasun unibertsala hobetzean, eraikin osoan DALCO arauak betez.

Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna S.A., como titular de la explotación del Palacio de la Música y de Congresos de Bilbao, tiene como objetivo fundamental para el ejercicio 2020 incrementar levemente los niveles satisfactorios de actividad tanto en el apartado cultural como en el congresual y de reuniones.

En el apartado de actividad congresual y de reuniones se prevee un decremento de los eventos realizados en el año 2019, con el consiguiente disminución de los ingresos alcanzados en el año 2019.

Así mismo, en el capítulo cultural, se presupuesta para 2020 un leve incremento de los ingresos provenientes de este área de actividad.

Así mismo, en el capítulo cultural, se presupuesta para 2020 el mantenimiento de los ingresos alcanzados en el año 2019.

Respecto a los ingresos generados por los concesionarios de restauración y aparcamiento, se presupuesta, para el año 2020, un incremento de los niveles de ingresos alcanzados en el año 2019.

Los ingresos esperados, así como la actividad prevista para año 2020, nos permitirá, un año más, cubrir los gastos necesarios para la prestación de nuestros servicios.

El nivel de instalaciones que ofertamos a nuestros clientes nos permitirá mantener, en el año 2020, la posición privilegiada que Euskalduna ostenta en el sector de palacios de congresos.

Así mismo y al igual que en ejercicios anteriores, la mejora continua y el mantenimiento de los reconocimientos alcanzados con nuestro Sistema de Gestión es considerado objetivo importante del ejercicio 2020, consolidando la integración de las áreas de calidad en la prestación de los servicios, en el comportamiento medioambiental, en la prevención de los riesgos laborales, en la mejora de accesibilidad universal según normas DALCO en la totalidad del edificio.



**Euskalduna Jauregia, A.B.
Palacio Euskalduna, S.A.**

Eusko Jaurlaritzaren euskara planen aldi berri batekin (2018-2022) bat etorriz, Euskaldunak 2018. urtean zilarrezko BIKAIN hizkuntza-kudeaketan kalitate-ziurtagiria lortu du, Eusko Jaurlaritzak eman ostean. Erakundearen aldetik euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketan normalizazio-maila zehatza adierazten du. Modu horretan, ziurtatua eta onartua gelditzen da.

Era berean, 2018an emakume eta gizonen berdintasunerako plan bat ezartzeari ekin zaio.

2019. urtean, 2017. urtean hasitako inbertsioen planarekin jarraituko dugu, era horretan gure instalazioak modernizatu ahal izateko. Eraikinaren guneak eguneratzen jarraituzen dugu, baita hobekuntza estetikoa gauzatzen eta eraikineko altzariak modernizatzen ere, eta, gure aurreikuspenen arabera, hurrengo urteetan ere horretan jardungo dugu.

Ekintza-planak eta horiei dagozkien hobekuntza-jarduerak betearazita, gure bezeroen gogobetetze-maila mantendu eta handitu nahi dugu. Bestalde, behar diren metodoak ezarri nahi ditugu, langileen motibazioa eta parte-hartzea handitzeko, etengabeko prestakuntzaren bidez langileak birziklatzeko, eta gero eta zorrotzagoa den merkatuak dituen beharrei egokitutako instalazioak eskaintzeko.

1. 2019. urte amaierarako aurreikusitako egoera

2019ko ekitaldian, enpresaren aktibo finkoak 4.075 mila € hazi dira, egindako inbertsioen ondorioz.

2019ko ekitaldian lortutako jarduera- eta okupazio-indizeak egokitzat jo behar ditugu.

Okupazio- eta jarduera-indize horiei esker, aurten ere, Euskaldunak leku abantailatsua izango du sektorean, Estatuko rankingeko lehenbizikoen artean jarraituko baitu.

Coincidiendo con el con el comienzo de un nuevo período de planes de euskera de Gobierno Vasco (2018-2022). Euskalduna ha obtenido en 2018 el certificado de Calidad en la Gestión Lingüística BIKAIN, plata, otorgado por el Gobierno Vasco y que acredita un nivel determinado de normalización en la presencia, uso y gestión del euskera por parte de la entidad quedando así, certificada y reconocida

Así mismo durante el ejercicio 2018 se comenzó la implantación de un plan de igualdad de mujeres y hombres.

En el año 2019, continuamos con el plan de inversiones iniciado en el año 2017 que nos permite modernizar nuestras instalaciones. Continuamos con la actualización de los espacios del edificio, mejora estética, modernización del mobiliario del edificio y prevemos seguir haciéndolo en los próximos años .

La ejecución de los planes de acción y sus correspondientes acciones de mejora pretenden mantener e incrementar los niveles alcanzados en los índices de satisfacción de nuestros clientes; la aplicación de métodos que nos permitan aumentar la motivación e implicación del personal, el reciclaje mediante la formación continua y una oferta de instalaciones acorde con las necesidades de un mercado cada vez más exigente.

1. Situación previsible a finales del año 2019

Los activos fijos de la compañía se han incrementado, durante el ejercicio 2019, en un total de 4.075 miles de € producto de las inversiones realizadas.

Los índices de actividad y ocupación alcanzados en el ejercicio 2019 los debemos de considerar como satisfactorios.

Estos índices de ocupación y actividad nos permite, un año más, mantener a Euskalduna una posición de privilegio en el sector, continuando entre las primeras del ranking estatal.



**Euskalduna Jauregia, A.B.
Palacio Euskalduna, S.A.**

Aurten ere, AENOR normalizazio-erakundeak, marka berritzeko edo berrikusteko ikuskaritza egokiak eginez, bermea eman dio gure kudeaketa-sistemari, arau hauei jarraikiz: UNE / ISO 9001 / 2015 kalitate-arloan, UNE – EN ISO 14001:2015 ingurumen-arloan, OHSAS 18001:2007 laneko arriskuen prebentzioan, eta UNE 170001-2:2007 irisgarritasun unibertsalaren arloan.

Horrez gain, gure kudeaketa-sistemak arrakastaz gainditu du ICTEK biltzar-jauregien arloan finkatutako UNE 187004:2008 arauaren berrikusketa.

2019. urtean, aurreko ekitaldietan bezala, landu diren ekintza-planen bidez, prozesuen kudeaketa eta kontrola hobetu dira, hain zuzen ere, adierazle egokiak berrikusiz.

2. 2020. urterako aurreikusitako egoera

Aurreikuspenen arabera, 2020. urtean, ekipamenduak berritzen jarraituko dugu, 2017an hasitako inbertsio planari jarraituta. Eraikinetako espazioak egokitzen jarraituko dugu; estetikoki hobetzen; eraikineko altzariak modernizatzen; ekipamendu haueetan erabiltzen diren teknologiarik puntakoenak ezartzen; barne-seinaleztapena eta bisitariarentzako joan-etorriei buruzko informazioa hobetzen, eta sozietatearen kudeaketa-sistemak hobetzen, tresna teknologiko integratuak erabiliz, enpresa digitala indartzeko. Halaber, zenbait ekipamendu berritzen jarraituko dugu, hala nola makineria eszenikoa, seinaleztapen digitala, etab.

Egoerari dagozkion ekintzak gauzatu ditugu, gure instalazioak hobetzeko eta irisgarritasun unibertsaleko DALCO arauen irizpideetara hobeto egokitzeko, irisgarritasuna, seinaleztapena eta abar hobetzeko inbertsioak eginez.

La empresa de certificación AENOR, un año más ha avalado, mediante las correspondientes auditorias de renovación o revisión de marca, nuestro Sistema de Gestión según normas UNE / ISO 9001 / 2015 en el apartado de calidad, en el apartado medioambiental según normas UNE – EN ISO 14001:2015, en el apartado de prevención de riesgos laborales OHSAS 18001:2007 y en el apartado de accesibilidad universal UNE 170001-2:2007.

Así mismo nuestro Sistema de Gestión también ha superado con éxito la revisión de la Norma UNE 187004:2008 que para Palacios de Congresos tiene establecida el ICTE.

En el año 2019, al igual que en ejercicios anteriores, se han abordado planes de acción que han mejorado tanto la gestión de los procesos así como su control mediante la revisión de los oportunos indicadores.

2. Situación prevista para el año 2020

Está previsto que, en el año 2020, continuemos con el plan de inversiones iniciado en el año 2017 que nos permita modernizar nuestras instalaciones. Continueremos con la actualización de los espacios del edificio, mejora estética, modernización del mobiliario del edificio, introducción de las tecnologías más avanzadas en éste tipo de equipamientos, mejora de la señalización interior y la información sobre flujos internos de los visitantes y mejora de los sistemas de gestión propia de la sociedad por medio de herramientas tecnológicas integradas que fortalezcan la empresa digital. Así mismo, continuemos la renovación de equipamientos como la maquinaria escénica, mejora en señalítica digital, etc.,

Hemos realizando acciones pertinentes para mejorar nuestras instalaciones y dar una mejor respuesta a los requerimientos de los criterios DALCO de accesibilidad universal con la realización de inversiones que mejoren nuestra accesibilidad y la mejora de la señalización, etc.



**Euskalduna Jauregia, A.B.
Palacio Euskalduna, S.A.**

Euskaldunak duen berezko jarduerari dagokionez, aurreikusitako egoera ekonomikoa aztertu ondoren eta gure jarduera-sektoreran eramanda, eta honezkero itxita dauden konpromisoak kontuan izanik, biltzar-arloko jardueran izandako diru-sarrerak apur bat igoko direla uste dugu, eta kultura-arloko diru-sarrerak mantendu egingo direla.

Langileria gastuen kapituluaren barruan, aurrekontuan ez da sartu 2019ko ordainsariei dagokienez espero den soldata-igoera; horiek esperientziarekin eta antzinatasunarekin erlazionatutako ordainsari-kontzeptuen aldaketan eragina izango dute.

Aldi baterako langileei dagokienez, izan litezkeen gaixotasunagatikoko bajak betetzea aurreikusi da, bai eta, antolaketa eta jarduerak tarteko, zereginak gehitzearen ondoriozko postu horiek betetzea ere.

Kanpoko Zerbitzuak estaltzera bideratutako gastuko kontu-sailean, oro har, prezioen % 1,5eko batez besteko igoera jaso da aurrekontuetan.

3. Aurrekontuetan jasotako inbertsioen zenbatekoa eta xedea

Jauregia jardunean egon den urteetan, okupazio-maila oso altua izan da. Ekipoak zaharrituta daude, hamabost urtetik gora eman baitituzte jardunean. Hortaz, kontuan hartuta 2017an hasitako instalazio-berritzearekin jarraituko dela, inbertsio-plan hau aurkeztu da:

En cuanto a la actividad propia de Euskalduna, tras el análisis de la situación económica prevista, el traslado de la misma a nuestro sector de actividad y teniendo en cuenta los compromisos ya cerrados prevemos un leve incremento en los ingresos obtenidos en el área de la actividad congresual, así como un mantenimiento de los provenientes del área cultural.

Dentro del capítulo de gastos de personal, no se ha presupuestado incrementorado sobre las retribuciones del año 2019, afectándose éstas con los deslizamientos de conceptos retributivos relacionados con la experiencia y antigüedad.

En el capítulo de personal temporal, se prevé la cobertura de posibles bajas por enfermedad, incremento de tareas por motivos organizativos y de actividad.

La partida de gasto destinada a la cobertura de Servicios Exteriores, se presupuesta, con carácter general, con un incremento medio del 1,5% de precios.

3. Importes y destinos de las inversiones presupuestadas

Considerada la actividad mantenida por el Palacio en sus años de funcionamiento, que ha supuesto unos niveles de ocupación muy altos; la obsolescencia propia de equipos, que tienen más de quince años de funcionamiento, y teniendo en cuenta la continuación de la renovación de instalaciones comenzada en el año 2017, se presenta el siguiente plan de inversiones:



**Txostena
Memoria**

MERKATARITZAKO FORU SOZIJETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Euskalduna Jauregia, A.B.
Palacio Euskalduna, S.A.

Ibilgetu immateriala / Inmovilizado Inmaterial	90.000
Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas	90.000.-
Ibilgetu materiala / Inmovilizado Material	1.651.392
Solairuen arteko barne komunikazioen birmoldaketa / Remodelacion Comunicaciones internas entre plantas	800.000.-
E aretoa, Lorategi ingeles erako negutegia eta Hall Berriko larrialdi-irteera birmoldatzeko lanak / Remodelacion Sala E, Invernadero jardín inglés y salida Emergencia Hall Barria	921.392.-
Aretoa eta instalazioak birmoldatzeko lanen ingeniaria / Ingenieria Obras de remodelacion salas e instalaciones	80.000.-
Aretoa eta instalazioak birmoldatzeko arkitektura zerbitzuak / Servicio de arquitectura y remodelacion de salas e instalaciones	80.000.-
Agertokiko makineriaren kontrola eta elektronika aldatzea / Sustitucion del control y electronica maquinaria escenica	250.000.-
Seinaleztapena hobetzea / Mejora señalitica	320.000.-